



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: 2014ko ekainaren 23a, astelehena

Ordua: 18:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: 23 de Junio de 2.014, lunes

Hora: 18:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2014.04.11, 2014.04.14, 2014.04.28 eta 2014.05.31).

2.- JUAN CARLOS BORBOIAREN ABDIKAZIOAREN AURREAN MOZIOA.

3.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKO MOZIOA.

4.- "FRAKING EZ MUGIMENDUA"K AUZKEZTUTAKO MOZIOA.

5.- "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE"K AURKEZTUTAKO MOZIOA.

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2014/73tik 2014/117ra).

7.- 91/2014 ETA 101/2014 ALKATE DEKRETUAK BERRESTEA.

8.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

ORDEN DEL DIA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (11.04.2014, 14.04.2014, 28.04.2014 y 31.05.2014).

2.- MOCION ANTE LA ABDICACION DE JUAN CARLOS DE BORBON.

3.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU SOBRE EL FUTURO DE LAS CAJAS DE AHORRO VASCAS.

4.- MOCION PRESENTADA POR "FRAKING EZ MUGIMENDUA.

5.- MOCION PRESENTADA POR "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE".

6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (73/2014 al 117/2014).

7.- RATIFICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA 91/2014 Y 101/2014

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkilen, 2014ko ekainaren 19an.

Alkatea.

Zizurkil, 19 de Junio de 2.014

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2014ko EKAINAREN 23an
EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAKO AKTA**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/ CONCEJALES:

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Aritz Esnaola Arruti (Bildu)

Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.).

IDAZKARIA / SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamalauko ekainaren hogeita hiruko hemezortzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udaltzatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) eta Aitor Sarasua Arruti (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela lege ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARREN
AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2014.04.11, 2014.04.14, 2014.04.28 eta
2014.05.31).**

Udaltzatza aho batez erabaki du 2014ko apirilaren 11, apirilaren 14, apirilaren 28 eta apirilaren 31n egindako Bilkuren Aktak onartzea.

**ACTA DE LA SESION DE PLENO
ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 23 DE
JUNIO DE 2.014**

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas del día veintitrés de Junio de dos mil catorce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) y Aitor Sarasua Arruti (Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE
ACTAS DE PLENOS ANTERIORES
(11.04.2014, 14.04.2014, 28.04.2014 y
31.05.2014).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 11 de Abril, 14 de Abril, 28 de Abril y 31 de Mayo de 2.014



ZIZURKILGO UDALA

2.- JUAN CARLOS BORBOIAREN ABDIKAZIOAREN AURREAN MOZIOA.

Akta honen I. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 7 (7 Bildurenak).
- Aurka: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, botuen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

E.A.J.-P.N.V.ek bere aurkako botoa argitu nahi du arrazoi hauengatik:

Lehen: Herri honek ez ditu bereak egiten ez Espainiako monarkia ezta ere Frantziako errepublika. Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzekeo dugun eskubidea aldarrikatzen degu. Euskal nazioa subjeto politiko bezela errespetatua izatea exijitzen degu.

Bigarrena: Bizi degun egoera politikoaren aurrean, errespetoan eta elkar aitortzan oinarrituko den elkarbizitzarako kultura berri baten alde, eta gure herriaren aitortza eta erabakitzekeo eskubidea eskuratzeko elburuaren alde lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.

3.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKO MOZIOA.

Akta honen II. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

2.- MOCION ANTE LA ABDICACION DE JUAN CARLOS DE BORBON.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. explica su voto en contra de la Moción por las siguientes razones:

Primera: Este pueblo no reconoce como suyas ni la monarquía española ni la república francesa. Reclamamos el derecho que tenemos los vascos para decidir sobre nuestro futuro y exigimos que la nación vasca sea respetada como sujeto político.

Segundo: Ante la situación política que vivimos, nos posicionamos a favor de una nueva cultura basada en el respeto y en el reconocimiento mutua y hacemos un llamamiento a los partidos políticos, sindicatos, agentes sociales y ciudadanía de Euskal Herria para trabajar para lograr el objetivo de conseguir el reconocimiento y el derecho a decidir de nuestro pueblo.

3.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU SOBRE EL FUTURO DE LAS CAJAS DE AHORRO VASCAS.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.



ZIZURKILGO UDALA

- Alde: 7 (7 Bildurenak).
- Aurka: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, botuen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

E.A.J.-P.N.V.ek bere aurkako botoa argitu nahi du arrazoi hauengatik:

Bere aitortza erakusten du ehun urte baino gehiagoko historian zehar Kutxak egindako lanagatik, bere gizarte lanagatik, bere finantza jardueragatik eta gure Lurraldearen garapen ekonomikoa eta sozialean izandako inplikazioagatik, finantza eragile nagusi moduan.

Espaniako finantza sisteman gertatzen ari den berregituratzearen aurrean, Kutxa banku fundazio bihurtzearen alde agertzen da, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko 26/ 2013 Legea betetzeko, eta, alde horretatik, gobernu organuei eskatzen die beharrezko izapideei ekitea, bihurtze hori Legeak xedaturiko epe eta terminoen erabera gertatzeko.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aureski kutxei eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legeak ezarritakoa betez, aureski kutxei buruzko euskal legedia egoki dezala eta banku fundazioei buruzko lege propioa gara dezala, legegintzako izapidetzeak ahalbideratzen duen ahalik eta azkarren eta, nolana ere, ekitaldi honetan.

Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen du, bai eta Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekiko duen konpromisoaren jarraipena, Kutxako edo banku Fundazioko gobernu organoetan izango duen ordezkaritza bidez, eta Foru Aldundiari eskatzen dio gauza bera egin dezala.

Kutxako gobernu organoei eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuan Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetatuz ordezkatuta egoteko

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. explica su voto en contra de la Moción por las siguientes razones:

Reconoce el trabajo realizado por Kutxa desde su creación hace más de cien años, la labor social realizada, la actividad financiera llevada a cabo y la implicación demostrada en el desarrollo económico y social de nuestro territorio, como principal agente financiero.

Ante la reestructuración del sistema financiero español, Kutxa se muestra a favor de convertirse en fundación bancaria, para cumplimiento de la Ley 26/2013, de cajas de ahorros y fundaciones bancarias, y solicita a los órganos de gobierno que inicien los trámites necesarios, para que dicha conversión se lleve a cabo en los plazos y en los términos fijados en dicha Ley.

En cumplimiento de la Ley 26/2013, de cajas de ahorros y fundaciones bancarias, solicita al Gobierno Vasco que, con la mayor celeridad posible, y, en cualquier caso, en el actual ejercicio, adecue una ley vasca de cajas de ahorros y que desarrolle una ley propia de fundaciones bancarias, que permita la tramitación legislativa.

Defiende el futuro de la actividad social de Kutxa y la continuación del compromiso con el desarrollo económico y social del territorio, mediante la delegación que va a tener en los órganos de gobierno de Kutxa o de la fundación bancaria, y solicita a la Diputación Foral que actúe del mismo modo.

Solicita a los órganos de gobierno de Kutxa que actúen con transparencia en el proceso de conversión de caja de ahorros a fundación bancaria, cumpliendo estrictamente la legislación vigente y respetando la mayoría y la diversidad social de Gipuzkoa en el patronato de



ZIZURKILGO UDALA

hastapenarekin bat.

Adierazten du Kutzaren eginkizunak etorkizunean ere izan behar duela duen ondarea kudeatzea lurraldekiko konpromisoa irispide erabilita, ekonomi eta gizarte garapena sustatuz, aipatu ondarearen etekinak Gizarte Ekintzara bideratuta, lehentasuntzat izanik aipatu ondarea babestu eta handitzea, eta lurraldearekiko konpromisoaren erakusgarri, Kutxabanken kontrola Euskadin egoten laguntzen duela.

Bildurentzat argi dago, Aurrezki Kutxak pribatizatzen badira, bere funtzio soziala galdu egingo dutela eta sektore publikorako laguntzak gutxitu egingo direla.

4.- "FRAKING EZ MUGIMENDUA"K AUZKEZTUTAKO MOZIOA.

Akta honen III. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 7 (7 Bildurenak).
- Aurka: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, botuen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

E.A.J.-P.N.V.ek bere aurkako botoa argitu nahi du arrazoi hauengatik:

Eskatzen du gas natural ez konbentzionaleko guneak miatzeko eta ikertzeko modu honetan egiteko, onartzeko eta garatzeko, garatu behar badira: Ingurumen-araudiaren arabera, zuhurtazun-prinzipioaren arabera, oso zorrotz betez ingurumen-ondasunak babesteko estandarrik zorrotzenak, batik bat, lurpeko akuiferoen, akuifero horiek berriz kargatzeko guneen eta Natura 2000 Sareko eremuen kasuan.

la fundación bancaria, conforme al principio de representación.

Expresa que Kutxa debe continuar con su labor de gestionar el patrimonio, siguiendo su criterio de compromiso con el territorio, fomentando el desarrollo económico y social, y destinando los rendimientos de dicho patrimonio a la Acción Social, priorizando la protección y la ampliación de dicho patrimonio, y que como muestra del compromiso con el territorio, ayuda a que el control de Kutxabank esté en Euskadi.

Para Bildu si las Cajas se privatizan, está claro que perderán su función social y habrá menos ayudas para todo el sector público.

4.- MOCION PRESENTADA POR "FRACKING EZ MUGIMENDUA".

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo III del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. explica su voto en contra de la Moción por las siguientes razones:

En caso de que se deban explorar e investigar zonas de gas natural no convencional, solicita que se realicen, aprueben y desarrollen de este modo: teniendo en cuenta la normativa ambiental, conforme al principio de prudencia, cumpliendo estrictamente los estándares más rigurosos para la protección de los bienes ambientales, sobre todo en el caso de los acuíferos subterráneos, las zonas de recarga de dichos acuíferos y las zonas de la Red Natura 2000.



ZIZURKILGO UDALA

Horretarako, plan horiek eta baimenek ingurumen-eragiñaren ebaluazioaren prozedura jarraitu beharko dute, nahiz eta indarrean dagoen legediak ez eskatu.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio batzorde zientifiko independente bat sortzea, ikertu dezan zer egoeran dagoen gas ez konbentzionala erauzteko haustura hidraulikoaren teknikaren garapena.

Batzorde zientifiko horrek, kasua eltzen bada, ustiapen horrentzako ingurumen araudi berariazko bat proposatuko du. Gañera, aztertuko ditu hobekuntza tekniko erabilgarriei lotutako erauzketa egiteko proposatzen dituzten kokapenak, eta, gero, muga eta baldintza zehatzak ezarriko ditu lan horiek egiteko; eta, edozein kasutan ere, ingurumen-eragiñaren ebaluazioaren prozedura jarraitu beharko dute halaberrez.

Miaketa eta ikerketaren ondorioz, eta bideragarritazun ekonomikoa arrazoitu eta justifikatutakoan, etorkizunean gas ez konbentzionala ustiatzeko aukera zortuko balitz, gas hori erauzteko moratoria mugagabe bat deklaratu dadila.

Moratoria hori, etetekotan, bakarrik etengo litzateke aipatutako batzorde zientifikoak txostena egin eta gero, hain zuzen ere, energia-erreserba horien ustiapenak ingurumen-prinzipioa eta ziurtazun zientifikoaren prinzipioa errespetatuz eginiko txostena.

Bilduren iritziz, erauzketa-sistema horretan alderdi ekonomikoari soilik ematen zaio lehentasuna, eta ez da inondik inora kontuan hartzen horrek sortzen duen ingurumen-eragina.

5.- "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE"K AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Akta honen IV. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

Para ello, dichos planes y dichos permisos deberán seguir el procedimiento de evaluación de impacto ambiental, a pesar de que la legislación vigente no lo solicite.

Solicita al Gobierno Vasco la creación de una comisión científica independiente, para que estudie el grado de desarrollo de la técnica de la fractura hidráulica para la extracción del gas no convencional.

Llegado el caso, dicha comisión científica propondrá una normativa ambiental específica para ese tipo de explotación. Además, analizará los emplazamientos propuestos para las extracciones relacionadas con mejoras técnicas disponibles, y, a continuación, establecerá los límites y las condiciones específicas para la realización de dichos trabajos, y, en todo caso, deberán seguir el procedimiento de evaluación de impacto ambiental.

Después de las exploraciones y de las investigaciones, y una vez argumentada y justificada la viabilidad económica, si en el futuro surgiera la posibilidad de explotar gas no convencional, se debería declarar una moratoria indefinida para la extracción de dicho gas.

Dicha moratoria sólo se interrumpiría si la comisión científica realizara un informe para ello. Dicho informe se realizaría respetando el principio ambiental y el principio de seguridad científica de la extracción de dichas reservas energéticas.

Para Bildu las razones que priman en este sistema de extracción son puramente económicas, sin tener en cuenta para nada el impacto ambiental que supone.

5.- MOCION PRESENTADA POR "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE".

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo IV del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.



ZIZURKILGO UDALA

- Alde: 7 (7 Bildurenak).
- Aurka: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, botuen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

E.A.J.-P.N.V.ek bere aurkako botoa argitu nahi du arrazoi hauengatik:

Zizurkilgo E.A.J.-P.N.V. udal taldeak Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari eskatzen dio, eskualdeko ospitaleen berezko zerbitzuak bermatzen jarraitzeko Tolosaldeko eskualdean, euskal osasun-sistemaren barruan.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio OSABIDEREkin batera integrazio informatikoko sistema bate zar dezan Tolosako La Asuncion klinikan, urtebeteko epean baranduenez.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio Tolosaldean osasun-zerbitzu publikoa, unibertsala eta kalitateskoa emeten jarrai deza, Gipuzkoako gainerako lurraldean egun egiten den moduan.

Onartzen dute ebaluatu beharra dagoela Eusko Legebiltzarrean ezagutzera eman den Santa Maria de la Asuncion klinika kudeatzeko hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak INVIZA enpresarekin sinatutakoa, 2011ko azaroaren 15etik 2014, urtera arte.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu INVIZA enpresarekin izenpetutako hitzarmenaren bidez exijitzen jarraitzeko eskualde horretan osasun – asistentziaren baldintzak Gipuzkoako gainerako eskualdeetakoakin parekatzea eta Debagoiena, Deba Behea, Goierri eta Bidasoako herritarrei eskaintzen zerbitzuen kalitatea eta kopurua berbera izatea.

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. explica su voto en contra de la Moción por las siguientes razones:

El grupo municipal E.A.J.-P.N.V. de Zizurkil solicita al consejero de Salud del Gobierno Vasco que siga garantizando los servicios propios de los hospitales comarcales en la comarca de Tolosaldea, dentro del sistema de salud vasca.

Solicita a la Consejería de Salud del Gobierno Vasco que, junto con OSABIDE, establezca un sistema de integración informática en la clínica La Asunción de Tolosa, en el plazo máximo de un año.

Solicita a la Consejería de Salud del Gobierno Vasco que continúe ofreciendo en Tolosaldea un servicio de salud público, universal y de calidad, como en los demás territorios de Gipuzkoa.

Reconocen que hay que evaluar el convenio de gestión de la clínica Santa María de la Asunción presentado en el Parlamento Vasco, y firmado por la Consejería de Salud del Gobierno Vasco con la empresa INVIZA, para el período del 15 de noviembre de 2011 al año 2014.

Solicitamos al Gobierno Vasco que mediante el convenio firmado con la empresa INVIZA, se le siga exigiendo para esta comarca que las condiciones de asistencia sanitaria sean iguales que en las demás comarcas de Gipuzkoa, y que la calidad y cantidad de servicios ofertados a los vecinos de Tolosaldea sean los mismos que los ofertados en las comarcas de Debagoiena, Debabarrena, Goierri y Bidasoa.



ZIZURKILGO UDALA

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2014/73tik 2014/117ra).

2014/73tik 2014/117ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2014ko apirilaren 10etik ekainaren 18ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7.- 91/2014 ETA 101/2014 ALKATE DEKRETUAK BERRESTEA.

Udalbatzak, aho batez, Alkate Dekretu hauek berrestea erabakitzen du:

- 91/2014 zenbakikoa, non 2015ko herriko jai egun izateko, irailaren 9a, Arantzazuko Amaren eguna, izendatzen den.
- 101/2014 zenbakia, non Iratze Lorezaintza C.B. enpresari prestatzen duen "Zizurkilgo berdeguneen mantentzerako lorezaintza zerbitzua" beste urtebeterako luzatzea zaion.

Beste aztergairik gabe, eta hemezortzi orduak eta hogeita hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (73/2014 al 117/2014).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 73/2014 al 117/2014 firmados por la Alcaldía entre el 10 de Abril y el 18 de Junio de 2.014 cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

7.- RATIFICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA 91/2014 Y 101/2014

La Corporación, por unanimidad, acuerda ratificar los siguientes Decretos de Alcaldía:

- Nº 91/2014, por el que se designa el día 9 de Septiembre, festividad de Nuestra Señora de Aránzazu, como día de la fiesta local para el año 2.015
- Nº 101/2014, por el que se amplía por un año el contrato del "servicio de mantenimiento de jardines y zonas verdes de Zizurkil" con la empresa Iratze Lorezaintza C.B.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las dieciocho horas y treinta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA – ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean



Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa, Frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionalaren krisi sakonean beste urrats bat gehiago izan da. Kolpe Militar Frankista eman zutenek, beraien jardunaren inolako ardura zein ondoriozko nozitu gabe, eta zituzten pribilegio eta botere guñeak mantenduz, "lotuta eta ondo lotuta" utzi zuten Estatu boterearen etorkizuna. Estatuaren zatiezintasuna aldarrikatuz eta hori hala izan zedin armadari berme funtzioa emanaz itxi zuten erreforma. 1978 ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa geratu zen, Euskal Herriak ez zuen onartu. Euskal Herriak uko egin zion konstituzio horri, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitzeko eskubidea ukatzen zigulako eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako. Frankismoaren amaieratik eratorritako eredu politiko-instituzional espainiarrak, demokrazia eza, gure herriaren ukazioa eta diktadura frankistarekiko haustura demokratiko eza ordezkatzeko dituen.

Eredu politiko hau ordea, ez da gai izan Espainiako estatuaren menpeko herrien zein Estatuko herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak. Atzerazinezko prozesuak ari dira eraikitzen. Herriak, herritarrek eta eskubide demokratikoak protagonista diren prozesuak hain zuzen ere. Bitartean, eredu politiko-instituzional honen krisiaren adierazle argia da, PP eta PSOEek, eta ordezkatu duten bipartidismoaren zilegitasun eta sinesgarritasun krisia.

Testuinguru horretan eman da Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa. Eta egoera honen aurrean, bistan da, ukazioan eraikitako eta politikoki agortutako marko politiko eta juridiko honi iraunarazteko itxuraldaketa operazio baten aurrean gaudela. Juan Carlos Borboikoaren abdikazioak ordea, ez dakar aldaketarik bere baitan: herrien ukazioan oinarrituriko eredu politiko-instituzionala ez bait da gainditu.

Erreforma inposatu zeneari irekita zeuden gatazka politiko guztiak bere baitan mantentzen dira eta Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioarekin batera, 1977an abian jarritako Frankismoaren Erreformaren fasea amaitzea beharrezkoa da. Hori da herri honen aldarrikapena. Abdikazioaren aurrean, benetako haustura demokratikoa emateko unea da. Herrien eta herritarren eskubideak gauzatu ahal izateko. Espainiako herritarrek beraien sistema politikoa erabakitzeko erreferendum-a egitearen alde gaude. Baina Euskal Herria ez da eztabaida horren subjektua. Euskal Herritarrok gure erabakiak geuk hartzeko dugun eskubidearen errespetua aldarrikatzen dugu, etorkizunean libreki gure egitura politikoa eraiki ahal izateko. Herriok dugun erabakitzeko eskubidearen gauzapena nola egingo den erabakitzeko unea da.

Honen guztiaren aurrean, ZIZURKIL ko udalak honako adierazpen hau onartzen du:

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, ZIZURKIL ko Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkariari.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.

Euskal Herrian, 2014ko ekainean



ZIZURKILGO UDALA

EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKO MOZIOA MOCIÓN SOBRE EL FUTURO DE LAS CAJAS DE AHORRO VASCAS

Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAEko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion –eta ondorioz KUTXA, ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantzaz betetakoa daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understanding-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkeztzen ditu

ZIZURKIL

Udaleko Udalbatzak eztabaidatu eta onartu ditzan:

A finales del pasado año se aprobó en el Estado Español la Ley 26/2013, de 27 de diciembre, de Cajas de Ahorros y Fundaciones Bancarias, desde entonces la incertidumbre se cierne sobre el desarrollo que esta tendrá en la Ley de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma Vasca por lo tanto en los Estatutos y Reglamento de KUTXA. A menos de un año del vencimiento del plazo para la transformación de las Cajas de Ahorros Vascas en Fundaciones Bancarias desconoce cuál va a ser el procedimiento para la elección de sus futuros Órganos de Gobierno.

Además, los últimos meses portavoces autorizados de KUTXABANK han venido realizando declaraciones en las que se anunciaba la inexorable venta de hasta un 70% de la entidad de crédito en base a supuestos dictados de la mencionada Ley, el Banco Central Europeo y el Memorandum of Understanding (MOU). Este tipo de declaraciones, al margen del objetivo final que persigan, solo sirven para confundir a la ciudadanía, ya que ni Europa ni Madrid obligan a la privatización de KUTXABANK.

Para un Municipio como el nuestro es de vital importancia el mantenimiento del control público de la principal herramienta financiera de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Es fundamental que KUTXABANK mantenga el espíritu fundacional de las Cajas de Ahorros que han venido funcionando en el último siglo y medio, ya que esta será la única garantía para la defensa efectiva del interés público, de la promoción de la Obra Social y de la apuesta por los intereses de la ciudadanía, el tejido productivo y la red institucional.

Por todo ello, el Grupo Municipal de EHBildu presenta al Pleno del Ayuntamiento de

ZIZURKIL

los siguientes puntos para su debate y aprobación:



1- ZIZURKILGO

ZIZURKILGO Udarak korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAko Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharrianetara zuzendu dezatela eskatzen die.

2- ZIZURKILGO

Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAko Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkartza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutzak eta finantza arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3- ZIZURKILGO

Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXAko langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4- ZIZURKILGO

Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAk bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.

insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a rechazar la privatización de KUTXABANK y exigir que su actividad se fundamente en las necesidades financieras y de la ciudadanía de nuestro territorio.

2- El Ayuntamiento de Donostia ZIZURKILGO

insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a que los Órganos de Gobierno de esta entidad garanticen la participación, representación proporcional efectiva de la sociedad alavesa, la renovación equitativa democrática y la transparencia. Es por eso que insta a los actuales Órganos de Gobierno a que basen en estos principios cualquier futura modificación estatutaria o reglamentaria haciendo valer este posicionamiento y defenderlo en todos los procedimientos dirigidos tanto a la potencial modificación de su naturaleza jurídica como a la regulación del marco normativo de las cajas de ahorro y de otras entidades de carácter financiero.

3- El Ayuntamiento de Donostia ZIZURKILGO

insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a que las entidades fundadoras, los y las impositoras y la plantilla de KUTXA así como el resto de los municipios de Araba sean los encargados de la proposición y elección democrática de las personas que conformen sus Órganos de Gobierno e insta a los actuales Órganos de Gobierno a recoger este principio en cualquier futura modificación estatutaria reglamentaria.

4- El Ayuntamiento de Donostia ZIZURKILGO

insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a descartar, expresamente, la elaboración de cualquier programa de desinversión o privatización que suponga reducción de la participación de KUTXA

en KUTXABANK, que seguirá siendo al menos



ZIZURKILGO UDALA



5- ZIZURKILGO

Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6- ZIZURKILGO

Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAEko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAko Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, KUTXAko Lehendakaritzari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politikoguztiei helaraziko die.

del 32%.

5- El Ayuntamiento
ZIZURKIL

insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a manifestar igualmente su compromiso por la defensa y fortalecimiento de la Obra Social de la entidad, mostrando su disconformidad con todas aquellas modificaciones normativas que puedan ponerla en cuestión, así como respecto de cualquier operación de desinversión en Kutxabank que pueda comportar la reducción de su cuantía.

6- El Ayuntamiento
ZIZURKIL

insta al Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca a recoger los principios y contenidos de la presente moción en cualquier futura modificación de la Ley 11/2012, de 14 de junio, de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma Vasca o en la elaboración de una futura Ley de Fundaciones Bancarias.

7- La presente moción será remitida a la Diputación Foral de Gipuzkoa y las Juntas Generales de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Donostia, a todos y todas las Consejeros Generales, a la Comisión de Obra Social, Consejo de Administración y a la Presidencia de KUTXA así como a todos los Grupos Políticos del Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca.



III ERANSKINA – ANEXO III

ZIZURKILGO UDALA

2014 EKA. 19

SARREREN ENREGISTROA

Zenbakia 623

ZIZURKILGO UDALA

FRACKING EZ

Fracking Ez mugimenduak ^{ZIZURKIL} Udaleko Osoko Bilkurari aurkeztzen dion mozioa haustura hidraulikoa ikertzeko abian dauden baimenen eteteari buruz

Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) hidrokarburoak bilatzeko saiakera asko egon dira. Gure lurraldeak hidrokarburoetan aberatsak ziren beste lurralde batzuekin zituen antzekotasunengatik, petrolio enpresentzat zonalde interesgarria zirudien. Hainbat saiakera egon diren arren, ez dira inoiz izan uste bezain arrakastatsuak.

Hala ere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzetako haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketara garatua izan da.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du, horren frogar nabariena SHESA, %100an diru publikoko enpresa, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunena bada ere, 2014ko apirilean EAE-n emandako 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-n zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

Teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, hala nola edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, airearen kutsadura, lurren okupazio eta putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak besteak beste. Gaur egun, fracking-ak dakartzan ondorio kaltegarriak hainbat txosten eta ikerketa zientifikoetan erraz egiaztatu daitezke.

Hau dela eta fracking-a egiten ari diren edo egiteko asmotan dauden lekuetan biztanlegoaren aurkako jarrera gero eta nabarmenagoa da. Institutuzioetan ere hasia da islatzen aurkakotasun hori, eta hainbat lekuetan fracking-a mugatzen edo debekatzen dituzten, adierazpenak, galdeketa, legeak eta abar onartuak izan dira. Adibide gisa, Vermont estatuak, AEB-etan edo estatu frantziarrak, europar, fracking-a debekatu dute beraien lurraldeetan. Guregandik gertu, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian fracking-a debekatzen duten lege autonomikoak onartu dira. Eta estatu espainiarrean 400



ZIZURKILGO UDALA

udalerritik gora izan dira bere burua "fracking gabeko udalerria" bezala izendatu direnak.

Teknika hau sortzen ari den arazoen aurrean, eta berauek agertzeko dagoen aukera aurreikusi eta eragozteko xedez, mozio honen helburu da udalerri honen mugen barruan teknika honen erabilera galaraztea.

Honen guztiagatik, Udalbatza honi aurkezten diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- ZIZURKIL Udalbatzak fracking-aren bitartez aztertu, ikertu edo ustiatu daitezken hidrokarburo ez konbentzionaletarako Ikerketa Baimen guztiak bertan behera geratzea eskatzen dio Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoari.

2.- ZIZURKIL Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio fracking-aren aurkako iritzia dela eta, jarrera aktiboa har dezan ZIZURKIL "Fracking gabeko Udalerri" izendatuz eta, ondorioz, "Fracking ez" seinalea udalerriaren sarreran jarritz.

3.- Frackingaren debekua eskatzen duen Herri Ekimen Legegilearen helburuarekin bat egiten duenez, ZIZURKIL Udalbatzak udaletxeko harrera bulegoetan sinadurak jasotzeko orriak izango ditu eta herritar guztiak sinatzera gonbidatuko ditu.



Tolosaldea da eskualde bakarra Gestio Publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa ez daukana, nahiz eta horrelako ospitale bat edukitzeko behar beste biztanle izan, 65.000, hain zuzen ere.

Egoera horrek, Osasun eta Kontsumo Sailak berak zabalduetako foiletoren bidez aitortutako egoera horrek, ekarri du Tolosaldeak ezin izan duela urtetan baliatu osasun zerbitzuaz Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen baldintza beretan.

Eskualdeko osasun arreta hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak proposatu zuen Tolosaldean berrantolatzea arreta espezializatua 2012ko urtarriletik aurrera. Horrek haxe zekarren: espezialitateen anbulatorioetik espezialistak desagertzea progresiboki; ospitaleratze orduan eskualdeko erreferentziazko ospitalea Asuntzio klinika izatea, ezin izango zuelarik Tolosaldeko jendeak Donostia ospitalera jo, berrantolaketa egin bitartean egin izan zuen bezalaxe, hala nahi izan zuenean; eta ospitale zerbitzu berriak martxan jarriko zituztela.

Osasun arretaren berrantolaketa hori pairatu ondoren, TOPA plataformak egindako Herri Ebaluazioaren arabera, hasiera hartan baino okerrago gaude orain: eskualde honetan inoiz ezagutu ez diren itxoin-zerrendak daude; kexa asko; espezialistak ez diren medikuek atenditzen gaituzte; batzuetan botikak eskatzen dizkigute ospitaleratuta dauzkagun familiartekoak tratatzeko, etab., hau da, jasotzen dugun osasun arreta geroz eta gehiago ari da urruntzen gainontzeko eskualdeetan ematen den zerbitzuetatik, nahiz eta guk haiek bezala ordaintzen dugun.

Gure iritziz, hau guztia dator eskualde honetan gertatzen ari den ospitale zerbitzuen ezkutuko pribatizaziotik, Arreta Espezializatuaren Berrantolaketa dela-eta. Gainera, Tolosaldean egiten ari direna Esperientzia Pilotu bat da, hain zuzen ere, pribatizazio hau etorkizunean aurrera eramateko Euskal Herri osoan.

Horregatik guztiagatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordera jo dugu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabaki dute:

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari urtebeteko epean bermatzeko eskualdeko ospitale bat Tolosaldean, Osakidetza sare publikoaren barruan.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari mantentzeko eta/edo berreskuratzeko 2011 arte espezialitateen anbulatorioan -Tolosalde osoari begira- funtzionatzen zuten espezialisten kontsultak.



ZIZURKILGO UDALA

TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE



Horregatik guztiagatik

DEI EGITEN DIEGU ORAINGO UDALBATZA OSATZEN DUTEN ALDERDI GUZTIEI JARRERA BAT HAR DEZATEN HONAKO PUNTU HAUEK GAINEAN:

1. Mantentzea Espezialitateen Anbulatorioaren zerbitzu publikoa, 2011 arte funtzionatzen zuen moduan.
2. Tolosaldeak Eskualdeko Ospitale Publikoa edukitzea, Gipuzkoako gainontzeko eskualdeek duten moduan. Horretarako, Asuntzio klinika publikatu egin behar da, gai horretan inplikaturik dauden agenteekin Lan Mahai bat sortu eta gero.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzea geldiarazteko Euskal Herrian egiten ari diren pribatizatze ekintzak.
4. Eskatzea Espainiako Gobernuari eta Madrileko Kongresuari indargabetezko 15/97 Legea, aukera ematen duena pribatizazio esperientzia hauek gauzatzeko.
5. Dei egitea herritar guztiei parte hartzera Tolosan, ekainaren 7an, egingo den manifestazioan, lan-mahai bat sortzearen alde.



Tolosaldea es la única comarca, con capacidad poblacional para ello, 65.000 habitantes, que no tiene un Hospital Comarcal Público de Gestión Pública.

Esto, reconocido incluso por el Departamento de Sanidad y Consumo en folleto ampliamente difundido ha ocasionado que durante años "Tolosaldea no disfrutase de las mismas condiciones de servicio sanitario que las demás comarcas de Guipuzkoa".

Para mejorar la atención sanitaria de la comarca el Departamento de Sanidad y Consumo propuso a partir de enero del 2012 una reorganización de la atención especializada en la comarca de Tolosaldea que conllevaba: el que progresivamente fuesen desapareciendo los especialistas del ambulatorio de especialidades y, que a la hora de ingresar la clínica de la Asunción fuese el hospital de referencia de la comarca no pudiendo acudir los vecinos al hospital Donosti si lo querían, como lo venían haciendo hasta el momento de la reorganización, además de que se pondrían en marcha nuevos servicios hospitalarios.

Tras haber estado padeciendo esta reorganización de la atención sanitaria la Evaluación Popular realizada por la plataforma TOPA es que en el momento actual nos encontramos todavía peor a como lo estábamos al inicio de la misma: listas de espera como nunca han existido en esta comarca; múltiples quejas; venimos siendo atendidos por médicos que no son especialistas, nos solicitan en ocasiones medicamentos para tratar a nuestros familiares ingresados, etc y nuestra calidad de atención sanitaria se va distanciando cada día más de la que vienen recibiendo los vecinos del resto de comarcas, a pesar de que pagamos lo mismo que ellos.

Somos de la opinión de que todo ello es fruto de esta Privatización encubierta de los servicios hospitalarios que se ha realizado en esta comarca con la Reorganización de la Atención Especializada y de que además lo que se ha hecho en Tolosaldea es una Experiencia Piloto para extender más adelante esta Privatización al resto de Euskalerrria.



Por todo ello hemos acudido a la Comisión de Sanidad del Gobierno Vasco y en las Juntas Generales de Guipuzkoa, se ha tomado este Mandato Imperativo:

- ▲ Las Juntas Generales de Guipuzkoa instan al Consejero de Salud del Gobierno Vasco a que en el plazo de un año garantice a la comarca de Tolosaldea un hospital comarca dentro de la red pública de Osakidetza .
- ▲ Las Juntas Generales de Guipuzkoa instan al Consejero de Salud del Gobierno Vasco a que mantenga Y/o recupere todas las consultas de especialidades que funcionaban hasta el 2011 en el ambulatorio de especialidades que daban cobertura a toda la comarca de Tolosaldea.

Por todo lo expuesto

HACEMOS UN LLAMAMIENTO A LOS DISTINTOS PARTIDOS QUE CONFORMAN LA ACTUAL CORPORACIÓN MUNICIPAL PARA QUE SE POSICIONEN ANTE LOS SIGUIENTES PUNTOS :

1. Por mantener el servicio público del Ambulatorio de Especialidades como venía funcionando hasta el 2011.
2. Por que se provea a la comarca de Tolosaldea de un Hospital Comarcal Público como el que tienen el resto de comarcas de Guipuzkoa para lo que se publicará la clínica de la Asunción, tras la creación de una Mesa de Trabajo conformada por todos los agentes implicados en el tema.
3. Por que soliciten al Gobierno Vasco el que se paralicen las experiencias de privatización que se están realizando en Euskalerría.
4. Por que pidan al Gobierno de España y al Congreso de Madrid que derogen la Ley 15/97 que posibilita estas experiencias de privatización.
5. Se hace un llamamiento a la ciudadanía a participar en la manifestación en Tolosa el 7 de Junio, por la creación de una mesa de trabajo.